



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza
Deialdia: Lehenengoa
Bilera mota: Arrunta
Eguna: 2022.07.27
Ordua: 18:00
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIK:

1. AURREKO AKTAREN ONESPENA

2022/06/23ko akta aho batez onartu da.

2. UDAL PLANEKO AASS ALDAKETA EGITURATZAILEA, UE-5 INGURUKO 5. POLIGONOKO 350. LURZATIAN. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak eta Eneko Sarriasek, Hirigintzako Zinegotziak, Silvia Tellechea Iraola eta Iñaki Etxeberria Aranazek sustaturiko Arantzako Udal Planeko AASS aldaketa egituratzailearen nondik norakoak azaldu dituzte. Aldaketa hau UE-5 inguruko 5. poligonoko 350. lurzatiari eraginen lioke.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

1.- Udal Planeko Arau Subsidiarioen aldaketa egituratzaileari hasierako onespina ematea, UE-5 inguruko 5. poligonoko 350. Lurzatian. Hori guztiak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 71. eta 77.2 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

2.- Aldaketa espediente guztia jendaurrean jartzea, hilabeteko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez, zeina Nafarroako Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarietan ere kaleratuko dena. Halaber, espedientea bizilagun edo interesdunen eskura egonen da udal bulegoetan, egoki jotzen dituzten iradokizun edo alegazioak egiteko.

3.- Jendaurreko informazioarekin batera, hasieran onetsitako Udal Plan Orokorren aldaketa lurralde-antolamenduari eta hirigintzaren arloko departamentu eskudunari bidaltzea, aldaketak ukitutako Nafarroako Gobernuko departamentuen eskumeneko gaietarako buruzko txostenak biltzeko, eta txosten orokorra egitea, dagozkion kontsiderazio sektorialak oinarritzeko.

4.- Alkatetzari ahalmena ematea, erabaki hau behar bezala gauzatzeko behar diren egintzak har ditzan.

3. MELILLAKO MOZIOA.

MELILLAKO HESIAREN INGURUAN 2022KO EKAINAREN 24TIK 25EKO GOIZALDEAN GERTATUTAKO SARRASKIA SALATZEKO MOZIOA

Ekainaren 24tik 25erako goizaldean Melillako hesiaren inguruan sarraski bat gertatu zen. Behin behineko balantzearen arabera, 37 pertsona hil dira eta askoz gehiago larriki zaurituak izan dira.

Gertaera larri hauek Espainiako gobernuaren migrazio politiken porrotaren adierazpen tragikoa dira. Andaluziako Giza Eskubideen Aldeko Elkartearen (APDHA) "2021eko Hegoaldeko Mugako Fluxu Migratorioaren Balantzea"k berriki emandako datuen arabera, gutxienez 2.126 pertsona hil dira Espainiako Estaturako migrazio ibilbidean, aurreko urtean baino % 24 gehiago. Hala ere, desagertutako pertsonen kopurua askoz ere handiagoa dela adierazi du erakundeak.

Horrekin batera, ezin dugu alde batera utzi Melillako gertaeren ondoren Espainiako Gobernuko presidentek adierazitako immigrazioaren aurkako diskurtsoa erradikalizatu egin dela. Bere adierazpenetan, mugaren bi aldeetako polizia jarduera hilgarriak justifikatzeaz gain, poliziaren lana ezinbestekotzat jotzen da migratzaileek erabiltzen duten indarkeriaren aurrean Estatuaren segurtasunerako, haien jarduera "ondo ebatzitako operazio" jotzen baita.

PSOEk hamarkadak daramatza giza eskubideen aurkako migrazio politika errepresiboak aplikatzen: atzeritarrei buruzko Legea, CIESak, hegoaldeko mugaren militarizazioa armada

6.- Hildako pertsonen gorpuzkiak berreskuratu, identifikatu eta jatorrizko herrialdeetara aberrirratzea exijitzea, familien nahiak errespetatuz.

7.- Salatzea, halaber, migrazio uholde hauek Espainia eta Frantziako Estatuak, bertzeak bertze, gauzatzen dituzten politika kolonialisten ondorio zuzen direla.

4. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA XEHAKATUA, LEHENTASUNEZKO BIRGAITZE EREMUA HIRIGUNE HISTORIKOAREKIN MUGATZEKO. HASIERAKO ONESPENA.

Alkatea eta idazkariak, Arantzako Udalak sustaturiko AASS aldaketa xehakatuaren nondik norakoak azaldu dituzte. Horrela bada, aldaketa hau Lehentasunezko Birgaitze Eremua hirigune historikoarekin mugatzean datza.

Era berean, alkateak adierazi du ongi legokela Arantzako Lehentasunezko Birgaitze Eremuko eraikinak birgaitzeko laguntzak arautzen dituen ordenantza kudeatzen hasterakoan herritarrekin batera partehartze bat egitea, euren ideiak jaso eta informazioa zabaltzeko.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

1.- Udal Planeko Arau Subsidiarioen aldaketa xehakatuari hasierako onespena ematea, Lehentasunezko Birgaitze Eremua hirigune historikoarekin mugatzeko. Hori guztiak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 72.1. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.- Aldaketa espediente guztia jendaurrean jartzea, hilabeteko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez, zeina Nafarroako Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarietan ere kaleratuko dena. Halaber, espedientea bizilagun edo interesdunen eskura egonen da udal bulegoetan, egoki jotzen dituzten iradokizun edo alegazioak egiteko.

3.- Jendaurreko epea pasatzen denean, emaitzak ikusita, betiko onestea, hala badagokio, behar diren aldaketak eginda. Aldaketa horiek hasierako onespena duen planari funtsezko aldaketa eragiten badiote, jendaurreko bertze aldi bat hasiko da, behin betiko onetsi baino lehen, hori guztia Testu Bateginaren 72.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

4.- Alkatetzari ahalmena ematea, erabaki hau behar bezala gauzatzeko behar diren egintzak har ditzan.

5. 2019. URTEKO "JAI GUNEETAN GERTATZEN DIREN ERASO SEXISTEN KONTRA JARDUTEKO PROTOKOLO INSTITUZIONAL"-REN EGOKITZAPENA 2022. URTEKO BESTETARAKO ONARTZEA.

bidalita, "lotsaren" zuzentaraua, "beroan" egindako kanporaketak, mugen kudeaketa kanpora ateratzeko Marokorekin sinatutako akordioak, hirugarren herrialdeetako migratzaileak Marokon berriz hartzeko akordioak, Ceuta eta Melillako hesiak, kontzertinak, migratzaileen heriotzak poliziaren eskuetara, adingabeen legez kanpoko kanporaketak...

Horri lotuta, Maroko Espainiaren eta EBren lehentasunezko bazkidea da migrazio fluxuen kontrolari dagokionez; eta lankidetzaz horrek itsas patruilatzeko bateratua eta migratzaileen detekzioa eta interzeptazioa gauzatzea suposatzen du. Migrazioa kontrolatzeko praktikak Marokoko lurralde osoan aplikatzen dira, eta batez ere Saharaz hegoaldeko Afrikako hainbat herrialdeetatik datozen pertsonak atxilotzen dira, herrialdearen barrualdera modu behartuan lekualdatzeko edota jatorrizko herrialdeetara deportatzeko. Jarduera hori gauzatzeko, atxilotze zentro ez ofizialak erabiltzen dira, hala nola bunkerrak, eraikin abandonatuak, polizia etxeetako zorupeak edo eskolak, non azkenean lekualdatuak edo deportatuak izango diren pertsonak atxikitzen diren; izan ere, migratzaileen eskubideen aldeko kolektiboek salatu dutenez, pertsona horiek ez daude prestatuta askatasunaz gabetzeko, eta, beraz, haien baldintzak osasungaitzak eta gaitzesgarriak dira, eta, gainera, tortura fisikoa eta psikologikoa egiten da horietan.

Azkenik, adierazi behar dugu heriotza horien erantzukizuna mugak ixteko migrazio politika krudel eta anker batzuei dagokiela. Politika horiek ez dira eraginkorrak immigrazioa kontrolatzeko helbururako, eta, gainera, sufrimendu handia eta giza eskubideak etengabe urratzen dituzte. Politika horien bidez, Espainiako Estatuak bere lurralde osotasuna lehenesten du, migratzaileek askatasunez igarotzeko eta harrera duina eta integrala jasotzeko duten eskubidearen aurrean. Argudio hori erabiltzen du, halaber, Irun eta Hendaia arteko mugan korridore humanitarioak irekitzea ukatzeko, Bidasoa ibaiko tragediak saihestu, eta, horrela, mugak pertsonen aurretik jartzeko.

Guzti hori dela eta, Arantzako Udalak ERABAKI DU:

- 1.- Ekainaren 24tik 25erako goizaldean Melillako hesiaren inguruan gertatutako sarraskian poliziak izandako basakeria salatzea (behin-behineko balantzean, 37 dira hildakoak eta askoz ere larri zaurituak); eta elkartasuna adieraztea hildako eta zauritutako pertsonen, haien lagunei eta hurbilekoei.
- 2.- Gertakari larri hauetan Estatu segurtasun indarren partehartzea salatu.
- 3.-Mugak militarizatzearen eta kudeaketa kanpora ateratzearen inguruan egun aplikatzen diren migrazio-politikak salatzea.
- 4.- Pertsona migrante guztien duintasuna eta giza eskubideen errespetua bermatuko dituen legezko bide seguruak irekitzea exijitzea.
- 5.- Ikerketa independente bat egiteko eskaera luzatzea, gertakariak argitu eta dagozkion neurriak ezartzeko.

Idazkariak Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuak helarazi duen 2019. urteko "jai guneetan gertatzen diren eraso sexisten kontra jarduteko protokolo instituzionala"-ren egokitzapenaren nondik norakoak azaldu ditu.

Horri dagokionez, protokolo hau 2022. urteko bestetarako aplikatzeko onartzea ezinbertzekotzat jotzen dute udalkideek. Izan ere, errespetu eta berdintasunean oinarritutako besta batzuk sustatu nahi dituzte; horregatik, eraso egoera batean nola jardun jakitea ongi legokeela deritzote.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

- 1.- 2019. urteko "jai guneetan gertatzen diren eraso sexisten kontra jarduteko protokolo instituzionala"-ren egokitzapena 2022. urteko bestetarako onartzea.
- 2.- Akordio honen jakinarazpena Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.
- 3.- Akordio honen laburpena, hala badagokio, herrian zehar zabaltzea orok jakin dezan.

6. ARANTZAKO BESTEN HARIRA ADIERAZPENA, ERASO SEXISTEN AURKAKO ETA BERDINTASUNEAN OINARRITUTAKO BESTEN ALDEKOA.

ARANTZAKO UDALAK deialdi berezia egiten du 2022ko herriko bestak berdintasunean bizi eta goza daitezen. EZETZA beti EZETZ dela azpimarratuz, herritar guztiek bestez berdintasunean gozatzeko aukera izan dezaten, Udalak honakoa ERABAKI DU:

- Besta eremuan ere berdintasunean oinarritutako harremanen aldeko apustua egitea, alkoholak, drogek eta besta giroak inolako erasorik eta errespeturik gabeko traturik justifikatzen ez dutela argi utziz.
- Besta gune guztiak herritar guztientzat seguruak izatearen aldeko apustua egitea.
- Herritar guztiei denon inplikazioa eskatzea, eraso edo jarrera sexista batean aurrean modu aktiboan jarduteko.
- Emakumeen aurka gerta daitekeen edozein eraso edo jarrera sexista oro gaitzestea.

7. ALKATEAREN EBAZPENAK.


79/2022 eta 85/2022 arteko ebazpenak berretsi egiten dira.

8. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Bertze aztergaririk izan gabe, 19:00 direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,



Dabid Iturria Almandoz



IDAZKARIA,



Nagore Madariaga Iriarte